

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2010eko azaroaren 12a
287. zenbakia. 22. urtea



Bakarrik ez, hobe lagunekin

Alboan bateren bat behar duen edadetua izateak ez du berekin bihozmina eta bakardadea ekarri beharrik. Eguneko zentroak betetzen du hutsune hori.

05

Orioko kontuak

Hezkuntza jardunaldiak

08

Kirola

Zaldi lasterketa

11

Aiako berri

Gozategi plazako lanak

25

Herritarra

Orioko senegaldarrak

le apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

LUXARBE
igeltsertza

Igeltsertza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisonik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 53 59 00

TANATORIO ZARAUTZ



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskolak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

tel: 943 88 48 37 / fax: 943 88 48 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

arztegia
MIRANDA
C.V.A. IZURZ

tarima, ate, teilu, eskalera...
behar duen aritz lasak
egingo ditugu

Urdeneria bidea, 1 - 940 42 32 70 - ZARAUTZ



islada
ESCUELA ZORROA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Bakarrak kalea, 7 behean - Oriko 20810
Tel: 943 131 866
e-mail: isladario@hormail.com

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzako asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com



Zaragueta
Eskola **ORIO**

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



Oriko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

"JUAN LARRAZPI" ERAIKUNTZAK, S.L.
(Jon Anzi)

Baserietako igeltsertza eta egunezko estruktura eta edita

Ezeen berrikuntzak:

- labak
- helak
- kusak
- beru jakak

TE 965 718 966 (Jon Anzi) Estropalea, 38-38 Orio

KOLON TXIKI
erakuntza
arabekoa



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



kutxa

LURDES
ARRAINDEGIA



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Maidar Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
POOLOLOGIA ZENTROA

ODITZ

Orriko erakundeak
egiten dituzten produktuak

tel. 943 53 00 59

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontoi andean

Tfnos: 943 83 01 89

HERRIKOIA
PATXI OLIDEN
Herrikoia

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
tekarra, txeriz, kroketak...

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 10

Zorionak Anjel

1

Anjel Lertxundi oriyotarra gizon piskor eta yayua; Goiko kaleko Pilar-enea etxe politen jayua, Madriletikan literaturan ekarri dek premiyua, euskaldun batek irabaztiak doble zaukak meritua.

2

Goiko kalen gora ta behera hainbat korrika egiña, orduan ere buruz azkarra ta mingaña huan fiña, gazte itzala Oriyotikan Zarautza itzan aldegiña, bañan hor ere jakintsua haiz ta lagunakin atsegiña.

3

Pentsatu diyat aitatutzia zerbait dekela merezi, bertso hauekin ez dek egingo noski askorik ikasi, literaturan nola haizen mundu hontako nagusi, Oriyoa ere azaldu hadi eta ondo-ondo bizi.

287

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldegi,
Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea
Pat Cowie

Publizitatearen diseinua
Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa
Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak
Onintza Aiestaran, Eneko Balerdi, Gorka Etxeberria, Harriet Goiburua, Orioko Independentistak taldea, Ainara Peña eta Iñaki Zaldúa

Laguntzaileak
Iñaki Iturain

Diseinua
Danel Agirre Lertxundi

Banatzzaileak
Oihana Genoba eta
Ana Murillo (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.000 ale



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Bi biktima ahaztu ditugu

Asteazkenean Oroimen Historikoari lotutako ekitaldia zen egitekoa Orion (gutun hau asteartean ari naiz idazten). Ekitaldian hiru atentatutan hildako bost gizon ekarri ziren gogora: Florentino Lopetegi, Francisco Pascual, Francisco Gomez, Aurelio Navio eta Juan Priede. Biktimen aldeko saioak beharrezkoak ditugu gizaratean. Elkartasuna adierazi behar diegu, gizon haiek hiltzeak ez zuela inolako zentzurik esan eta haien hilketa alferrikakoa izan zela aitortu.

Urriaren 26an Orioko udalbatzarrak erabaki bat hartu zuen gehiengo osoz, Jaurlearitzaren biktimen aldeko aldarrikapen bati puntu bat erantsi genion. Jatorrizko testuak ETaren biktimak aipatzen zituen, eta beste talde terrorista batzuenak. Zinegotzi baten eskaera onartuta, talde terrorista horiek izendatu egin genituen (Batallon Vasco Español, ATE, AAA, GAL...), beste zinegotzi batena erantsita, estatuaren indar armatuak eragindako hildakoak ere biktimatzat jo genituen. Irizpidea politikari lotuta eraildako guztiak aintzat hartzea izan zen.

Udalbatzarrak onartutakoaren ildotik, asteazkeneko ekitaldiak bazuen gabezia bat, bi biktima ahaztu genituen, 1936ko gerra hasi berrikan fusilatuta hildako bi oriotar, ez epaiketarik, ez delituarik, ez ezeren errurik izan ez zuten bi oriotar: Jose Mari Carmona eta Teodoro Mitxelena. Jose Mari errepublikarrek hil zuten Ondarretako kartzelan, monarkikoa zelako; Teodoro, Francoren aldeko faxistek, Orioko gainean, ELAkoa zelako. Orioko Udalak ez du sekula bi biktima horien aldeko ekitaldirik egin. Orain genuen aukera, ez dugu egin eta zorretan geratu gara. Ea noiz kitatzen dugun zorra! ■ **Iñaki Iturain**. Zinegotzia

Sineskeriak, bukatzeko

Soka luze samarra ekarri du sineskeria berriei buruz 284. KARKARAN argitaratuen zutabeak eta poztu egin nau horrek, hitza hartu duten gehienak nik esandakoaren kontra agertu badira ere.

KARKAREN azken zenbakian bi idatzi daude, zutabe hari erantzuten diotenak: Amaia Gozategirena bata, gutunetan, eta Unai Manterolarena bestea, iritzi orrietan. Biak errespetuz idatziak eta kontuan hartzeko moduko arrazoiak ematen dituztenak. Ezin diet tarte labur honetan erantzun haien arrazoi guztiei; baina bati behintzat heldu nahi diot: beste kontu batzuen artean, biek esaten dute gauza bat, askotan aditu dudana: *si-*

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

neskeria/sinesmen berri horiek norbait on egiten badiote, non dago arazoa? ba-koitzak ikusi dezala zer zaion baliagarri eta zer ez. Zer esaten ari gara? Ez duela inporta espiritismoa edo astrologia, esate batera, gezurra izatea, batzuei kontsolagarri bazaie eta zoriona aurkitzen laguntzen badie? Zer esaten ari gara? Egiak ez duela, kasu honetan, ezer balio? Ezin dut bat egin irizpide horrekin eta harrigarria egiten zait inork argumentu hori baliatzea. Espiritismoa gezur handi bat bada eta batzuek etekin ekonomikoa ateratzen badute gezur hori saltzen, hori salatu beharra dago. Kontua ez da gurtzada bat abiatzea, a porellos joateko; baina ikuspegi kritikoa izatea onerako da beti. Edo bulda berezia al dute horrelako gaiek? Nik esaten badut automobil zaharren saltzaileei ez zaiela guztiz sine-tsi behar eta komeni dela eszeptizismoz hartzea haien esanak, zuhur ari naizela irudituko zaie gehienei; gauza bera esaten badut espiritistei buruz, berriz, estimatzen dudan jende zintzoak ere intolerantziaren zantzuak ikusten ditu nire hitzetan. Ez al gara ari bi neurgailu era-biltzen, bat normalerako eta bestea fedekontuetarako?

Azken kontu bat esan nahiko nuke, bukatzeko: egia da jendeak barruko korapilo eta ezinegon asko dituela/ditugula eta horregatik jotzen duela *irtenbide* horietara; baina garbi daukat korapilo eta ezinegon horiek inportanteegiak direla segun eta noren eskuetan uzteko. ■ **Jabier Zabaleta**

Beste bueltatxo bat

Beno Jabier: ni ere asko *motibatzen* nau gaik eta beste bueltatxo bat emango

diogu, nahi baduzu. Benetan ari naiz besteen iritziaz errespetatzen ditudala diodanean, nire iritziez ere zalantzak ditudalako etengabe, baina harrapatu nauzu: ez dut errespetatzen iritzien inposaketa. Horri inkisizioa deitzen diot, handiuste eta orojakile iruditzen zait bestearen jakinduria edo jakin nahia ez-jakintasunetik inposatu nahi duena.

Erraz jartzen duzu zientziaren onura zure iritzien alde, ifrentzuari kasurik egin gabe, eta horrela luzatu gintezke mendeak, bata alde onak eta bestea txarrak bilatzen, baina ni ez nago zientziaren kontra. Zientzia ez delako zuk erakutsi nahi diguzun egia bakar eta monolitikoa, egunero aldatzen den ezagutza kontraesankorra baino. Tamalez, gaur egun, sistema suntsitzaile honen zerbitzura dago, eta erabat diruaren menpekota da; ondorioz, egun ez da gizakiaren onurarako indar neutrala, munduko jauntxoek botere tresna baizik; eta galbidean garamatzalakoan nago, ez zientziak berak, bere erabilerak.

Hala ere, ez da hori nire eztabaida gaia, ulertzen ez duzunak merezi duen errespetua baino, eta esango didazu zure ahotan erabiltzen duzun *komunitate zientifiko* horrek, *sineskerien* zakuan sartzen dituzun esperientzien kontra dituen froga horiek zeintzuk diren, zeren hitz handi horien atzetik ez dut putza besterik somatzen. ■ **Asier Bastarrika**

Elkartasun tonbola

Orioko Ikastolako DBH4ko ikasleok antolatutako elkartasun tonbola jarriko da Gabon egunean. Duela 5 urte hasi ginen antolatzen jendeak harrera bikaina egin dion tonbola.

Tonbolaren bidez lortutako irabazi guztiak, bi zatitan banatzen ditugu: erdia, martxoan egingo dugun kurtso amaierako bidaia finantzatu ahal izateko eta, beste erdia, berriz, Ruandako eskola batera bidaltzen dugu, bertan ezinbestekoa duten materiala erosi ahal izateko. Horregatik esaten diogu elkartasun tonbola.

Tonbola horretan eskuragarri egoten diren sariak Orion dendaz denda pasa eta bertakoek borondatez emandako opariak bilduta lortzen dugu. Aurten ere Orioko komertzioei laguntza eskatu beharrean gaude, izan ere, beren eskuabaltasunagatik antolatu dezakegu tonbola.

Besterik gabe, gure eskerririk beroenak urtero hori guztia aurrera eramaten laguntzen diguzuen guztiei. ■ **Orioko Herri Ikastolako DBH4ko ikasleak**

O3ten.HSN hezkuntza jardunaldiak antolatu ditu Independentistak-ek

Herriko hezkuntza esparruko eragileek osatutako Hezkuntza Kontseilua sortzea eta hezkuntzari buruzko hausnarketari bidea zabaltzea dute helburu hilaren 15, 16, 18, 23 eta 25eko saioek

Hezkuntzak egunerokotasunean, nazio baten eraikuntzan, norbanakoaren garapenean, historian, euskal kulturaren transmisioan... duen garrantziaz ohartuta, O3ten.HSN (Hezkuntza Sistema Nazionala) hezkuntza jardunaldiak antolatu ditu datozen egunotarako Orioko Independentistak foroak.

Hezkuntza sistema propioa ez izateak sortutako mugak, politikak eragindako aldaketak, euskal curriculum sortzeko oztipoak... ardatz hartuta, hausnarketa prozesua jarri nahi dute martxan, besteak beste, administrazioek egindako aldaketak aztertu, esperientziak elkarbanatu eta, batez ere, Orioko hezkuntza esparruko eragileek osatutako Eskola Kontseilua sortzeko helburuarekin.

Independentistak egindako proposamenaren arabera, Mugabek kudeatzen duen helduen eskolako, Txurrunuski aisialdi taldeko, Maria Maestra haurreskolako, Danbolin Musika Eskolako, Orioko Herri Ikastolako eta Zaragueta Herri Eskolako ordezkariak osatuko lukete batzorde hori eta Euskal Herriak behar duen eskola ereduaren gainean eztabaidatzeko balioko luke. Aholkumahairekia izango litzateke herriko gainerako hezkuntza eragileentzat ere.

Harria, herria, irria

Hiru multzotan banatu dituzte jardunaldiak: euskal harria, Euskal Herria eta euskal irria.

Kulturaren transmisioaz eta eraberri-tzeaz arituko dira euskal harria atalean. Atzera begiratu eta euskaldunon joan-etorrian ezinbestekotzat dituzten gertakariak aztertuko dituzte: *Ez dok hamahiru* taldea eta euskal kulturaren suspertzeaz arituko da Benito Lertxundi, Xabier Sukia alboan duela, azaroaren 15ean; hilaren 16an, 500. urtemugan *Nafarroako Estatutua Birsortu dezagun* hitzaldia eskainiko du Beñi Agirrek; eta emakumeen ekarpena, bai hezkuntzan eta baita hezkidetzan ere aztertuko ditu Edurne Epeldek hilaren 18an.

Gaur egungo hezkuntza sistemaren errealitatea izango da hizpide Euskal Herria sailean. Azkenaldian izandako aldaketak aztertu eta hezkuntza propioaren bidea egiteko beharrezko diren ele-



O3ten hezkuntza jardunaldien antolatzaileak kartelak eskuetan dituztela. ORIOKO INDEPENDENTISTAK

mentuak identifikatzen saiatuko dira. Atal horretan, Orioko hezkuntza eragile-en mahai ingurua antolatu dute azaroaren 23rako. Jon Agirresarobe *Torrotxo* eta Rikardo Uzkudun arituko dira moderatzaile.

Bestalde, Euskal Herriko hezkuntza sistema ere izango dute aztergai azaroaren 25ean. Bertako hezkuntza ereduaz gain, beste eredu batzuek ere arituko dira Euskal Herriak Bere Eskolako Ainhoa Larrabe, Hik Hasi aldizkariako koordinatzaile Arantxa Urbe eta Joxemari Azurmendi eta Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*. Orioko kultur etxean izango dira ekitaldi horiek guztiak, 19:30ean.

Euskal irriak, berriz, haurrak izango ditu protagonista, zoriotsu izateko hezi behar direlako norbanakoak; antolatzaileen ustez, hezkuntzak norberaren nor-tasuna eta zoriontasuna bilatzen lagundu behar duelako. Irriak eragingo ditu Porrotxek plazan, hilaren 25ean, 17:00etan, eskainiko duen emanaldiak. Ondoren, bizikleta martxa eta txokolata izango dira.

Hezkuntzatik iruten

ORIOKO INDEPENDENTISTAK
TALDEA

Nazioa egituratzeko orduan funtsezko osagaia izateaz gain, haren etorkizuna bermatzeko tresna ere bada hezkuntza. Jasotzen den heziketa nolakoa, biharko jendartea halakoa. Oriotik hasita, gaurtik hasita, hasiko gara iruten herriak eta herritarrok independentziaren bidean behar-beharrezkoa dugun Hezkuntza Sistema Nazionala. Hezkuntza hizpide, hausnarketak eta zalantzak partekatzeke, bakoitzaren errealitatean oinarriturik abiatu nahi ditugu jardunaldi hauek; betiko topikoak garaitu eta hezkuntzaren gainean ikuspegi berri eta fresko bat osatzeko asmoz. Hezkuntza komunitatea osatzen dugun norbanako nahiz eragileei zuzentzen gataizkizue, zuen ekarpena ere funtsezkoa baita.

'Auzoko' egitasmoa martxan da euskaraz ez dakitenei irakasteko

Orion bizi eta euskara ez dakitenak gure hizkuntzara hurbiltzeko tresnak ematea da proiektuaren helburua. Jolasak eta herritar euskaldunen inplikazioa izango dira oinarri

Herriko hainbat txoko paperez josita ikusi dituzte oriotarrek aurreko egunetan; herrialdeen izenak eta hango hizkuntzak irakur zitezkeen txartel horietan. Baina, zer dela eta hainbeste paper? Bada, *Auzoko* egitasmoa aurkezteko. Aurkezpen ofiziala asteartean izan bazen ere, programa aurretik martxan jarrita zuten Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Topaguneak.

Euskara ez dakiten herritarrak hizkuntzara hurbiltzeko egitasmoa da *Auzoko*. Euskara irakaskuntza formaletik atera, irakaslearen irudia kendu, eta herriko euskaldunen inplikazioaren bidez, kaleko euskara irakastea du helburu; hau da, gramatikari garrantzia eman beharrean ahozko tasuna lantzea. Era berean, herritarrak beste hizkuntzen jakitun egiteko ere balio dezake.

Erantzun ona

Martxan jarri baino ez da egin eta astelehenetan bi talde elkartzen dira, dagoeneko. Goizean (11:00-12:30) 10 lagun elkartzen dira; lau euskaldunak eta sei lagun, euskara ikasi nahi dutenak. Arratsaldean (19:00-20:30) 16 lagun dira; horietatik 12 azaldu dira ikastera. Jolasak erabiliko dituzte euskara modu arinean ikasteko.

Orion Arantxa Arrillaga da proiektuaren arduradun. Berak esan digu oso erantzun ona izan duela egitasmoak eta nabarmendu nahi duela kalean erabiltzeko oinarrizko euskara ikasi nahi duten guztientzat zabalik daudela atea.



Taldean eta jolasen bitartez egiten dituzte euskara modu errazean ikasteko ariketak. KARKARA

LABUR

Jendartea Terrorismoaren biktimei omenaldia

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erakundeek, tartean Orioko Udalak, asteazkenean, hilaren 10ean, izan zuten Terrorismoaren Biktimak Gogoratzeko Oroimenaren Eguna. Ekitaldi xume batekin gogoratu zituzten biktimak herriko plazan, eguerdian. Omenduen senitartekoei oroigarri bana eman ondoren, elizako aldapan jarritako plaka bistarazi zuten.

Argazki emanaldia Ijitoak Munduan

Oriotarrek egindako bidaien nondik norakoak azaldu eta bisitatutako herriak oriotarrei ekartzeko Ijitoak Munduan argazki emanaldi zikloa antolatu du Orioko gazteteak azarorako. Hiru saio eskainiko dituzte, eta guztiak ere oriotarren bizipenak izango dira: *Mozambique eta Zinbawe bizikletan* hilaren 14an, 19:00etan; *Peruko Andeak mendiz mendi*, azaroaren 21ean, 19:30ean; eta *Surfean Maldivetan* hilaren 26an, 22:30ean. Etxeluzean izango dira emanaldi guztiak. Gaztetetik atera gabe, bidaiatzeko aukera izango da.

Udaleko kontuak Zerbitzuen adjudikazio lehiaketak

Udalak bi lehiaketa jarri ditu martxan: etxez etxeko laguntza-zerbitzua adjudikatzekeko bat eta kanpineko taberna-supermerkatuaren zerbitzuak adjudikatzekeko bestea. Bi lehiaketak arautzen dituzten baldintza-orriak udal idazkaritzan eta www.oriora.com webgunean jarri dituzte ikusgai. Eskabide orriak Orioko Udaleko erregistroan (astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era) aurkeztu behar dira abenduaren 3a baino lehen. Postaz ere bidal daitezke, eskaria posta-bulegoan egun horretan edo lehenago zigitatuta.



Childsplay lurra jarriko dute Baxoaldeko eta Bikamiotako parkeetan. KARKARA

Parke berria egingo da Abaromendin eta daudenak egokituko dira

Baxoaldeko eta Bikamiotako jolastokietan lurra aldatuko da, lekuz mugituko dira jolas batzuk eta erabilera egokiari buruzko informazioa daukaten kartelak jarriko dira parke guztietan

Herriko haurrek aisialdian gozatzeko zortzi jolas-parke daude Orion: Goikokalen eta Arranplan -1 eta 14 urte bitartekoentzat-; Hondartzan bi -2 eta 14 urte bitartekoentzat kabinen aldekoa, eta 6 eta 15 urte bitartekoentzat bestea-; eta bana Anibarko Portuan, Zaraguetan, Baxoalden eta Bikamiotan -1 eta 12 urte bitartekoentzat-. Parke horietan umeek segurtasunez eta modu erosoan jolas egin dezaten, gune batzuetan aldaketak egingo dituzte laster batean. Bestalde, haurrek jolas parke berri bat ere izango dute Abaromendiko zelaian.

Lurra egokitu

Baxoaldeko eta Bikamioetako parkeetan, hurrenez hurren, gomazko eta belarrezko lurra kendu eta *childsplay* motako lurra jarriko dute; hau da, Arranplako eta Anibarko Portuko jolaslekuetan dagoena bezalako: hondarrez betetako alfombra modukoa.

Baxoaldekoan, gainera, segurtasun

arauak betetzeko, hainbat joko tokiz aldatuko dituzte. Gainerakoan, kolorezeta formaz betetako 210 metro koadro *childsplay* jarriko dituzte, orain bezala bi zonaldeetan banatuta.

Bikamiotako parkean, berriz, 196 metro koadro *childsplay* jarriko dituzte. Jolasak bere horretan utziko dira eta menditxo batzuk gaineratuko dituzte, haurren entretenimendurako.

Jostatzeoko parke berria

Abaromendiko eremu berria ere jolastoki eske ari dela-eta, 100 metro koadro inguruko parkea egingo du Orioko Udalak han. Erdiko belardiaren bukaeran kokatuko da, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren inguruan eta, eraikitze lanak hasteko badaude ere, non joango den ikus daiteke, gaur egun hondarrez betetako zulo bat baitago. Kasu horretan ere aipatutako lur berezia jarriko dute eta, herriko gainerako jolastokiak bezala, Lurkoi enpresak jarriko ditu.

Orain arte herrian ez ditugun hainbat jolas hartuko ditu, bestalde, parke horrek: lau lagunentzako balantzina, txabolatxo bat eta zabua, txirrista eta eskaladarako gunea, denak batera dituen jolas multzoa. Burdinazkoak izango dira.

Erabilera egokirako kartelak

Parkeak Udalak jartzen baditu ere, erabilera egokia ematea herritar guztion ardua da. Hortaz, jolasak txukun eta egokira onean mantentzeko kartel bana jarriko da parkeetan eta jolas horiek erabiltzeko gomendatutako adina zehaztuko da. Adin tarte hori baino txikiago den haurrek ere erabil ditzakete jolasak, baina, betiere, laguntzaile nagusi batekin badabilta.

Hainbat debekuren berri ere emango dute kartelok: jolastokietan galarazita egongo da erretzea, baloiarekin jolastea, txakurrak sartzea edota bizikletarekin ibiltzea. Bestalde, zaborra zakarrontzira botatzeko agindua ere badute.

Bi telefono zenbaki ere jarrita dituzte, azkenik: larrialdietakoa, ezbeharren bat gertatuz gero erabiltzeko; eta Kudeparkena, puskatutako edo matxuratutako jolasen berri emateko.



Trosta goxoan ibili beharko dute 30 zaldik, berrogei kilometroko ibilbidean. OIER ETXENIKE

Euskal Herriko zaldirik azkarrena zein den Lusarben erabakiko da

Euskal Herriko zaldi lasterketen Ligako finala hartuko du Oriok azaroaren 13an. Goizeko 09:30ean hasita, arratsaldera arte arituko dira 30 bat zaldi, behor eta zaldun, denak emanda, trostan-trostan

Zaldi festa galanta izango da azaroaren 13an Benta eta inguruetan. Izan ere, Pello Saizarren ekimenez, gurean jokatuko da Euskal Herriko Ligako azken zaldi lasterketa; finala, alegia.

Lusarbeko parkean hasiko da proba, goizeko 09:30ean. 10:00ak bitartean aterako dira zaldun eta zaldi guztiak -30 inguru-, erlojuaren kontrako lasterketen modura. 40 km egin beharko dituzte, bidearen erdia egin eta gero deskantsurako tartea hartuz. Izan ere, horrelako proba neketsuetan zaldiaren osasuna gertutik jarraitzen dute antolatzaileek eta, hasi aurretik eta 20 kilometro egin ondoren, animalien egoera aztertuko dute, baldintza egokietan ez dagoena lasterketatik kanpo utziz.

Gora eta behera handiko ibilbidea

Ibilbide teknikoa izango dute zaldiek aurrez aurre, maldan gora eta behera ibili beharko baitute: Lusarbetik Lusarbeerdirako bidea hartuko dute zaldiek aurre-

na. Berriz Lusarbera handik; gero Egiluzera; errepidera atera eta Lusarbeko parkera; Lusarbera buelta egin eta Munioetara; Igeldo txakurtegi albotik pasa eta Itxasperako bidea hartuta Anduko zelaira; handik Longara eta Lusarbera itzulia bukatzera. Horrelako beste 3 buelta egin beharko dituzte. Proba luzea da eta, Saizarren iritziz, arratsaldeko laurak izango dira bukatzerako. Longa eta Benta arteko trafikoa kontrolatu egingo dute, zaldiek bertatik pasa behar dutelako, eta arretaz ibiltzeko ere adierazi dute.

Gurean inoiz horrelakorik ez dela izan -eta, Lusarbe aldera hurbiltzeko gonbita egin dute antolatzaileek.

Oriotarrak tartean

Orioko zaldunik ez da izango lasterketan; bai, aldiz, zaldi oriotarra. Izan ere, Pello Saizarren beraren Farad, odol aratzeko behor arabiarra, arituko da lehian, Olaberriako Oier Etxenike gainean zaldun duela.

LABUR

Pilota

Paleta ikastaroak neskentzat

Emakumeak pilotari ekimenaren barruan paleta ikastaroak antolatu dituzte 18 urtetik gorako emakumeentzat. Izena emateko epea atzo bukatu zen arren, ikusteko dago ikastaroa egingo den ala ez eta noiz. Hala ere, egitekotan goizez izango dira eta ordu eta erdiko saioak izango dira. Bestalde, Pilota Elkaratek antolatuta lehen ere bada paleta ikastaroa, ostegunetan 20:00etan.

Galarraga DV txapelketan

Azaroaren 14an hasiko du Eneko Galarraga pilotari oriotarrak binakako El Diario Vasco txapelketa. Joseba Ezkurdia arbizuarra izango du aurrelari. Zegamako frontoian jokatuko dute lehen norgehiagoka 12:00etan eta Elezkano eta Otxandorena izango dituzte aurrez aurre. Partida irabaziz gero finalerdietarako txartela lortuko dute.

Arrauna

De Anta 11. Munduko Txapelketan

Edorta de Anta Orioko Arraun Elkarteko arraunlari tolosarrak 11. postua lortu du Arraunketa Egokituko Munduko Txapelketan, Zeelanda Berrian. Final nagusitik kanpo gelditu ondoren, B finalean aritu zen. Bosgarrenetik hamaikagarrenera arteko postuak ziren jokoan eta 500 metro eginda bigarren bazen ere probaren amaieran bere denbora laugarrena izan zen Poloniako arraunlariaren aurretik. Hala ere, araudiaren inguruko arazoengatik azken tokian utzi zuten epaileek Edorta de Anta.

Harri-jasotzea

Hiru aiar 'Albizuri haundia' jasoz

Amezketako udaletxetik *Albizuri haundi* harria plazara atera eta txapelketa egin zuten azaroaren 7an harri hori erabiliz. Heldulekurik gabeko harria da, errekan edo itsasoan aurki daitekeen horietakoa, erabiltzeko traketsa. 166 kilo ditu eta ahalik eta jasoaldi gehien egin behar izan zituzten harri-jasotzaileek hamar minutuko txanda bakarrean. Parte hartzaileen artean ziren Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.a*, Jexuxmari Iruretagoiena *Izeta III.a* eta Unai Lertxundi aiarrak, eta Oriora ezkonduko Joseba Ostolaza zestoarra. Ostolazak irabazi zuen 8 jasoaldi eginda, atzetik Urtzi Telleria eta *Izeta III.a* izan ziren, 3 altxaldiko aldearekin; Telleriak, arinagoa izateagatik, bete zuen txapeldunordearen tokia.

Oriok aurrera egin du Trindoorrean

Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen Mahaia* kirol saioan larunbatero jokatzeko den Trindoorreko kanporaketan Bermeo gainditu du Oriok, eta Hernani izango du hurrengo aurkaria finalerdian

Kontxako Bandera eta beste estropadak atzera gelditu ziren arren, Bermeori hor-dagoa bota dio Oriok eta, itsaso zabalean izan beharrean, lehorrean eta teiltupean lehiatu ziren urriaren 23an Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen Mahaia* kirol saioko Trindoorrean.

Arraunean neurtu zituzten lehenengo indarrak eta Trindoor denboraldiko marka egiteko egon zen Urdaibaiko Iker Zabala. Izan ere, 1.000 metro egiteko hiru minutu behar izan zituen Urdaibaiko arraunlariak eta 2 m 59 s-ean du errekorra Arkaitz Goñi hernaniarrak. Orioko Arraun Elkarteko Haritz Etxebeste

oso gertu ibili zen, baina 3 m 02 s-an osatu zuen ergometroko lana.

Bizikletan Garmin-Cervelo talde berriko zuzendari Bingen Fernandez aritu zen Bermeoko taldetik bost kilometroak 6'34"-an osatuz; Orioko taldearekin aritu zen Añorga KKE-ko Eneko Santamariari segundo bakarreko aldea aterazioz.

Hussein Kaanacheren kolpea

Korrikako saioa hasi zutenean Bermeok hiru segundoko aldea zuen Oriorekiko, baina Hussein Kaanache atleta oriotarrak eman zuen kolpea lasterka. Hasieratik bukaerara, orduko 21 kilometro abia-

duran osatu zuen saioa eta 5'59"ko marka jarri; denboraldi berriko azkarrena.

Josu Munitiz, Bermeoko Taraskako atleta lehen kilometroan orduko 18,5 kilometroko abiadura hasi zen arren asko mantsotu zen eta 7'20" behar izan zituen proba amaitzeko. Bukaeran, beraz, Orio izan zen garaile 15'36" denbora eginez eta Bermeok baino 1'18" azkarrago bukatu zituen lanak.

Probak bukatuta oriotarrak Hernanikoek -iazko irabazleak- egindako denborei begira aritu ziren, izan ere, haiek izango dituzte finalurrekoetan aurkari. Abenduaren 4an jokatuko dute oriotarrek hurrengo proba.

Ohorea ez ezik, irabazleentzat opari bereziak ere izango dira jokoan: goi mailako bizikleta, ordenagailuak eta GPSak, besteak beste.



Ergometroan, bizikleta gainean eta korrika neurtu behar dituzte indarrak trindoorrean. HIRU ERREGEEN MAHAIA

MASAJISTA

Kosue

Lunbalgia
Kontrakturak
Eskoliosia
Drainatze linfatikoa
Ziatika

Abeslari kalea, 4
Orio
Tf: 943 57 74 26

HARROBI ANAIAK
IGELTSARITZA OROKORREAN

Gremioen koordinazioa
GAIZKA: 687 80 24 93
EKAITZ: 635 73 10 79

Profesionalak - Azkarrak - Merkeak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
harrobianaiaak@hotmail.com



KARKARA

“Gazteen segidarik ez dago herri kirolean, sakrifikatuak dira eta”

Paulo Aldalur

Herri kirolen antolatzailea

12 urte daramatza Paulo Aldalur aiarrak herri kirol probak, batez ere, idi-demak, antolatzen eta suspertzen. Bukatu berri diren azaroko Kintopeko idi-proben aitzakian hurbildu gatzazkio, zaletasuna hizpide

L. BERASALUZE

Etxean txikitatik ikusi eta ikasita sortu omen zaio Paulo Aldalurrei demekiko zaletasuna. Idiak, zaldiak edo astoak non, Paulo han. 12 bat urte badira, ordea, begiratze hutsari utzi eta antolaketan burubelarri sartu zela. Zazpi lagun hasi ziren demak prestatzen; bi bakarrak dira orain. **Antolaketa lanetan aritzeko ez dira bi lagun asko. Nola moldatzen zarete?** Nahikoa ondo moldatzen gara, egia esan. Hor ibiltzen gara hara eta hona:

Bizkaira joan, apustua ikusi, hango batekin batekin harremanetan jartzen saiatu, gero Aiara etor daitezten eskatzeko...

Idi-probez gain, beste hainbat herri kirol bultzatzen ere saiatzen gara: sokatira, giza probak, harri-jasotzaileak... Gogoia nahikoa da eta hori badugu. Herrian saltsa pixka bat jarri nahian ibiltzen gara. Hala ere, argi izan behar da, tarteka tratatu txar askoak hartzen direla, goizaldera beste herri batera joan behar denean, hurrengo egunean lana dagoela jakinda. Esker txarrekoa da.

Nola uztartzen dituzu lana eta hobya?

Ahal bezala. Autonomoa izanda, pisaketarako eta abar moldatzen naiz. Gainerakoan, goizeko ordubietan etxera etorri izanagatik ere berdin-berdin joan behar izaten dugu lanera 06:00etan, begi bat itxita daukagula.

“Gogoia izatea nahikoa da herri kiroleko probak antolatzeko eta hori badugu. Herrian saltsa pixka bat jarri nahian ibiltzen gara”

“Gipuzkoaren erdian dago Aia eta leku ona da, buelta guztitik probalariak eta itzaiak ekartzeko. Atseginez hartzen dute guztiek gure herria”

Ez dirudi idi-probak beren garairik hoberenean daudenik, ezta?

Idi pare asko badaude, baina, nik esan behar banuke, ez da igual demen garairik hoberena izango. Animalia gaztekin ari dira lanean eta pixka baterako egongo da, seguru asko. Aian bertan, 16 pare bildu ditugu aurtengo Kintopeko proban. Bada zerbait!

Bestalde, Bartzelona aldean zezen plazetako jarduna galarazi egin dute eta idiekin ere hasita daude batzuek; bateko gehiegi zulatzen dituztela odola ateratzen dela eta ez dela. Batzuetan agian pasako dira, baina ez dut uste, horrenbesterainokoa denik.

Ikusleei dagokionez, ez dago lehenagoko konturik. Azken egunean purrustada handia izaten zen; egunerokoa jaitzita dago orain eta azken egunekoa ere bai. Dirua erraz joaten da eta poltsikoa nahikoa hutsa dago lehendik ere.

Gainerako herri kirolean ere beherakada nabarmentzen al da?

Kirol hauetan gaztea gutxi ikusten da, segidarik ez dago. Helduak daude eta haiek ez dira betiko. Ikusi egin behar, ea zaletasun gehiago sartzen zaion gazteari. Idi-probek, giza probek eta aizkolariek nahikoa indar badute hemen, baina... sakrifizioa eskatzen dute kirol modalitate horiek eta hori da gazteak nahi ez duena: udako oporrak nola galdu! Paliza handia hartu behar da eta ez du, gainera, inolaz ere bizitzeko ematen. Diru-laguntzarik ere ez dago, izan ere eta.

Aiak badu idi-demarako ohitura.

Gipuzkoaren erdian gaude eta leku ona da, buelta guztitik probalariak eta itzaiak ekartzeko: Bizkaitik, Zumarraga inguruetatik, Tolosa aldetik... Atseginez hartzen dute gure herria.



Lanak hasita daude eta abendurako bukatuta egon behar lukete. KARKARA

Oinezkoentzako bideak lotuko ditu Gozategi plaza eta frontoia

Plazarako sarrera ere egokitu egingo da; besteak beste, ezin izango dute autoek bertan aparkatu, karga-deskargarako ez bada, eta oztopo-zutoinak jarriko dira pasoa erregulatzeko

Udal frontoiaren pareko Sartalde kalearen zatia errepide izatetik oinezkoentzako gune izatera pasako da laster. Izan ere, herriko lekurik jendetsuenak oinezkoentzako prestatzeko beharra ikusi du Udalak.

Altzola construcciones enpresa ari da azaroaren 3az geroztik, lanak egiten. Dena bide onetik joanez gero, bospasei aste barrurako bukatuta egon behar lukete egokitze lanek.

86.200 euroko kostua izango dute lanek eta Espainiako Gobernuak finantzatuko ditu.

Espaloiaren altueran

Sartalde kaleko 120 bat metro koadrotan aldatuko da errepidearen itxura. Espaloi mailara igoko da alde batetik, eta inpri-

matutako asfaltoz beteko da. Lau estolda-zulo ere jarriko dituzte errepidearen erdian, euri urak jasotzeko.

Bestalde, autoak, gehienez ere, orduko 30 kilometrorra pasa daitezke herrigunetik, lehen bezala.

Gozategi plazarako sarrera

Hiru oztopo-zutoin ipiniko dituzte Gozategi enparantzaren sarreran: horietako bakarra izango da jaitsi eta igoko dena, autoei bidea emanez. Zutoin horien alboan, berriz, sei jardinerajarriko dituzte.

Aparkalekuei dagokienez ere aldaketak izango dira. Izan ere, Gozategi plazaren sarreran autoa uzten dutenek beste tokiren batean utzi beharko dituzte gero, zama lanetarako bakarrik erabili ahal izango baita eremu hori.

LABUR

Jaiak

Altzolako San Roman festak

San Roman eguna da azaroaren 18an eta Altzola auzoan festak dituzte. Oste-gunean meza izango dute 11:30ean eta bazkal aurretik eta ondoren erromeria Astiazaran anaiekin. Auzotarren afaria izango da gero eta trikiti doinuak berriz ere afalostean. Igandean, azaroaren 21ean, helduko diete berriz festei. Meza izango dute 11:00etan eta erromeria gero. Iluntzean baratxuri zopa eta txokolatea jateko aukera izango da.

Kirola

Kintopeko idi probak

Hamasei idi-pare aritu dira aurten Aiako Kintopeko idi probetan. Justu-justuan, Itziarri Erretenek eraman du txapela, 60 plaza eta 2.40 metro eginda. Birleko Laski izan da bigarren, 60 plazarekin. Aiarren artean, berriz, Arzadun sailkatu da Izetaren aurretik -6. izan da bat, 53 plaza, zinta 1 eta 2,38 metroekin eta 11. bestea, 49 plaza, 5 zinta eta 1,93 metroekin-. Orioko Olidenez, aldiz, 9. postuarekin konformatu behar izan du, 50 plaza eta 2,25 metro eginda. Emaitzei erreparatuta, animalien arteko alde nabarmena izan da: 60 plaza egiteraino iritsi dira txapeldunak eta 40 plazatan geratu dira azkenak, Birleko Mendiperen idiak.

Argazki lehiaketa

Argazkiak ikusgai kultur etxean

V. Argazki Lehiaketarako lanak kultur etxean egongo dira ikusgai azaroaren 14ra arte. 12 lagunek -horietatik 4 aiarrak- ateratako 31 argazki jaso dituzte aurten. Bestalde, herritarren botoek erabakiko dute zein argazkik merezi duten 2011ko egutegian agertzea. Erakusketa ostiraletan 15:30etik 19:15era egongo da zabalik eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara. Sari banaketa Gabon inguruan egingo dute egutegia banatzearekin batera.



RAMIRO
argazkiak

ezkontza erreportajeak
600 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 697 668
www.fotoramiro.com

Behobia-Donostiara joateko komeriak

Tgunak hogeita lau ordu ditu, horrela da. Haurrak izan aurretik ordu guztiak niretzako ziren: ikasteko, kirola egiteko, eskulanetarako, dendetara joateko... Baina etxean 3 umerekin ez naiz ezertara iristen. Nire denbora haiei eskaini behar! Batzuetan oso gustura eta, beste batzuetan, ez hainbeste.

Beti gustatu izan zait kirola egitea, baina, esan bezala, familia aurrera atera behar denean kiroldegietako ordutegiak eta etxeokak ez dira bat etortzen.

Hori dena aitzakia besterik ez dela eta, duela pare bat urte anaiak esan zidan kiroldegira joan gabe bazegoela kirola egitea. *Zergatik ez haiz korrika hasten?* Nire erantzuna azkarra izan zen: *Ni korrika? Inoiz egin ez eta ni korrika? 40 urterekin*

nola hasiko nauk, ba, korrika? Baina bai, horrela hasi nintzen. Kilometro bat egitetik hirura, gero 10, eta orain 20 ere egiten ditut. Hori bai, denbora librean, e!

Txakurra hartu eta kamioetan barrena oso gustura ibili naiz. Neguan, iluntzean, herriari bueltaka eta, udaran, eguzkipean kolore pixka bat hartuz.

Eta familia? Amak korrika egiteak denoi mesede egin digu: ni lasaitu egin naiz –energia negatiboak oinetatik alde egiten dit– eta etxeokekin ere beste aldarre batean nago.

Lagunak ere egin ditut korrika: Ainhoarekin eta Elirekin errazagoa da. Al-tzuzelaira, Olasorora, Andazarratera, Laurgainen behera... Pasa den udan bururatu zitzaigun hurrengo *meta*: Behobia-Donostia lasterketa.

Geroztik, behin baino gehiagotan esan diot neure buruari: *Ez ote da gehitxo hirezako?* Azken 3 hilabeteotako eginkizunen artean egon da Behobiarako prestakuntza: lana, familia, etxekoladak, eguraldi txarra... guztia batera.

Entrenamendu saioak astean bira murriztu dira. 15 kilometro egitearekin batera hasi zaizkit gorputz guztiko minak: lepoko zaintiratua, azkazalak erortzea, urradurak... zalantza asko ditut. Senarrak esaten dit gaizki pasatzekotan ez joateko, baina izena eman eta gero ezin joan gabe geratu! Badakizue emakumeok zein harroak garen eta ezin ba utzi saiatu gabe, behintzat.

Azaroaren 14an Behobiatik abiatuko naiz Donostiara eta han gertatzen zaidana beste egun batean kontatuko dizuet.



Txokoak eta jendea

Nola pasatzen den denbora!

Hemen dituzue herriko mutiko *txintxoenetakoak*, bere garaian behintzat, eskolatik egindako irteera batean orain dela 35 bat urte. Ezkerretik hasita Antonio Aldalur, Jose Manuel Lasa, Gabino G. de Txabarri, Iñigo Eizagirre, Jose Mari Orbegozo, Justo Odriozola, Jose Mari G. de Txabarri, Martin Uranga eta Jesus Eizagirre.



BALENZIAGARENA ETA URDIN ILUNA

Bixenta Eizagirre eta Modesto Elizalde dira argazkiko ezkonberriak. 1936. urteko urtarrilaren 4an egin ziren senar-emazte, Orioko San Nikolas de Bari elizan. Ezkontza berezia eta seguru asko, sonatua, izango zen garai hartan. Izan ere, beltza izaten zen emaztegaiaren soinekoa ordua arte, eta urdin ilun kolorekoa zen Bixentarena. Urdin ilun, goitik behera; galtzerdiak ere kolore horretakoak jantzi baitzituen. Lehengusu propioa zuen Cristobal Balenziagak egin zion soinekoa, Donostia eta Paris artean hara eta hona zebilela. Modesto, aldiz, beltzez, tradizional, ezkondu zen.

Ez dakigu bazkaria eman zuten ere, orduan ez zen ohikoa izaten-eta. Askok gosaria eskaintzen zieten gonbidatuei.

Ezkon-bidaian, berriz, Billbora joan omen zen bikotea.

74 urte geroago, *Kristobal Balenziaga. Maisuaren eratzia (1985-1936)* liburuan jaso du argazkia Miren Arzalluz egileak. Izan ere, etxean gordeta izan du, hainbeste urtetan, Bixentaren alaba Jonek soinekoarekin batera.

Getariako Balenziagaren museoa irekitzen dutenean, bertan jarriko dute soinekoa ere.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: JONE ELIZALDE

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

LOBETXU JETETXEN

Eusko Gudarri, 18 Tel: 943 83 00 07

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudarri, 48
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 40

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TROMBOKAK BARRIMAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel: 943 830 743
Fax: 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

AENOR R ENABE 180 8008
Esterako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna



09:00etan sartzen dira lehen lagunak eguneko zentrora. Sofan eserita, irakurriz edo kontu-kontari egoten dira gainerakoak noiz etorriko zain. KARKARA

Bakardadeari aurre egiteko: eguneko zentroa



Aitona-amona gutxi batzuk oinez iristen badira ere, autobusak ekartzen ditu gehienak. KARKARA



Pasiatzeko eta bisitak jasotzeko aukera ere izaten dute. KARKARA

Korrika eta presaka bizi garen jendarte honetan, haurrak eta edadetuak dira, babes gutxien dutenak. Eskoletara bidaltzen ditugu txikienak; zaharrenei, berriz, **eguneko zentroetan** egiten diegu lekua. Lagunartean, entretenituta eta zainduta egiten dituzte eguneko orduak, familiakoak jasotzera etorri arte

TESTUA ETA ARGAZKIAK: LORE BERASALUZE

Sei urte egin ditu Orioko eguneko zentroak uztailean. 2004an ireki zituen aurreneko aldiz bertako ateak Biharko enpresak. 12 lagunentzako lekua zuen orduan eta astelehenetik ostiralera hartzen zituen aitona-amonak.

Beharrak aginduta ireki zen zentroa gurean. Izan ere, Zarautzen eta Aian ezaugarri bereko lekuak bazeuden, baina ez zen nahikoa, eskariak eskaintza gainditzen zuten eta.

Hasierako urte haietan segituan naba-

ritu zen zentro berriak ez zituela behar-erabat asetuko. Horren isla izan zen, ireki eta urtebetera, 2005. urteko urrian, 13 plaza gehiago jarri izana, egungo 25 osatuz. Orduetik hona asteburuetan ere hartzen dute jendea, gainera, kopuru txikiagoan –12 edadetu– bada ere.

Momentuan, 66 eta 94 urte bitarteko 25 lagun dituzte zentroan –6 dira gizonetzakoak eta 19 emakumezkoak–, astelehenetik ostiralera artean, erizainaren, erizain laguntzaileen, gizarte laguntzailearen eta psikologoaren ardurapean. Horietatik gehientsuenek etxean pasatzen dute asteburua, baina 11 aitona-amona eguneko zentroan zaintzen dituzte larunbat eta igandetan ere, ordu gutxiagoz bada ere.

Herritarrei lehenetasuna

Salbuespenak salbuespen, orokorrean, 65 urtetik gorako edadetuak hartzen ditu eguneko zentroak. Aldundiak zehaztutako dependentzia gradua izatea ere beharrezkoa da. Menpekotasun balarazio hori egiteko hainbat bide daude, baina Udaleko gizarte zerbitzuetara jotzen dute normalean aitona-amonaren familiek, aholku eske.

Eguneko zentrorako baimena emanda, espedientea bidaltzen du zentrorra Diputazioak. Bertako gizarte laguntzaileak aitona-amonaren familiarekin jartzen da harremanetan gero, funtzionamenduaren eta abarren berri emateko.

Orion kokatuta egonda, herriko edadetuak dute sartzeko lehenetasuna. Ale-

gia, azken plaza oriotarrentzat gordetzen da, inguruko herrietako bateren bat sartzeko prest badago ere. Hala ere, tokiak uzten duen neurrian, azken horiek ere izaten dira bertan. Gaur, 2 aiarrek eta 6 zarauztarrek dute tokia.

Inguruko herrietako gizarte laguntzaileekin, Udal ordezkariekin eta Aldundiarekin etengabeko harremanetan izaten dira zentroko arduradunak. Haien bitartez jakiten dute sartzeko espedienterik dagoen ala ez, eta nolabaiteko aurreikuspenak egiten dituzte. Orioko koordinatzaile eta psikologo Naike Illaramendiren arabera, aurreikuspenak, ordea, ez dira batere zehatzak, inoiz ez baita jakiten bihar zein eta nola izango dituzten beren artean. Neguan, adibidez, udan baino eskaera gehiago izaten omen dituzte.

Bitartekoak

Bitarteko bereziak behar izaten ditu pertsonak adin batetik aurrera. Horiek etxean izatea ez da ohikoena leku falta edo kostua kontuan hartuta; ezinezkoa zaie askori, esaterako, ohe bereziak eta gruak erostea, diru laguntzak badiren arren.

Erraztasun horiek ere eskaintzen ditu eguneko zentroak: bi garabi dituzte, aitona-amonei pardelak aldatzen eta dutxatzen laguntzeko.

Giza baliabidez ere ondo hornituta daude: elkarri egiten dioten konpainiaz gain, etengabeko arreta ematen diete erizain laguntzaileek; astean bitan etortzen zaie erizaina nola dauden ikusi eta aztertzeraz; psikologoa ere eskura dute...

Egunbat zentroan

Goizeko 09:00etan irekitzen ditu ateak Orioko eguneko zentroak, astetartean -10:00etan asteburuetan- -10:00ak jota arte hartzen du jendea. Oinez etortzen dira batzuk, familiak lagunduta; lagun edo senitartekoren batekin autoan beste batzuk; baina gehientsuenak autobusean ekartzen dituzte.

Gosaria ematen zaie hala aukeratu dutenei -meriendaren eta gosariaren artean aukeratu behar izaten dute edade-tuek- eta gainerakoek irakurritz edo kontu-kontari itzaroten dute.

Egunari errepasoa emanez heltzen diote zentroko eguneroko martxari. Errealitatera hurbiltzeko ahaleginean, eguraldia edo aurreko egunean egindakoak izaten dituzte hizpide 10:30ak arte.

Ariketa fisikoa egiten dute ondoren: besoaketa hankak esnatu, gerria mugitu, simetria landu... bakoitzak ahal duen bezala eta ahal duen neurrian egiten ditu ariketak, gogoaren eta indarren arabera.

Egunkariak jasotakoaren berri ematen die atzetik erizain laguntzaileak.



Eskulanak, matematikak, jolasak egiten dituzte, bakoitzak ahal duen neurrian. KARKARA



Guztiak batera, launakako mahaietan, bazkaltzen dute, 13:00etan. KARKARA

Euskaraz eta erdaraz egiten dituzte albisteei buruzko azalpenak.

Bisitentzako tartea ere izaten dute egunero, 11:30etatik 12:30era eta 16:30etik 17:00etara. Gehiagoren beharrik ez dutela uste dute zentroko arduradunek, 17:30ak aldera etxera itzultzen baitira aitona-amona guztiak, eta arratsalde osoa dute lagun edo familiarrekin egoteko: *bisitak hartzeko mugak jarri behar izaten dira, bestela taldeko lana eta erritmoa eten egiten dutelako eta aldrebeskeria litzatekeelako guretzat.*

Egunean eguneko jardueraren txanda izaten da gero: aitona-amonaren egoeraren arabera (muga asko dituztenak, oinarrizko mailan; ondo daudenak, aurreratuan eta estandarrean gainerako guztiak) mahaiaren bueltan esertzen dira, laborterapia, margotu, irakurri, meza entzun edo tokatzen dena egiteko. Izan ere, asteko plangintza aurrez zehaztuta izaten dute eta haren arabera egiten dituzte lan horiek.

Bazkaltzera eseri aurretik, komunera-ko buelta egin -dutxa tokatzen zaienak

garbitzen dituzte- eta tirriki-tarraka pasatzeko aukera dute.

Bazkaldu eta gero siesta egiten dute gehienek. Lo egin nahi ez duenak, berriz, bere erara pasatzen du denbora. Illarramendik adierazi digunez, lo kuxulka horrek erakusten die, besteak beste, aitona-amona lasai dagoela beren artean eta eguneko zentrorra ohitu dela.

Behin indarrak berreskuratuta, jokoa -bingoan eta kartetan gehienetan- aritzeko prestatzen dira. Hankak mugitu ondoren, merienda hartzen dute, zentroan bertan gosalduta ez dutenek. Komunera-ko azken buelta egin ondoren, etxerako bidea hartzen dute, hurrengo egunera arte.

Finantzazioa

Gipuzkoako Aldundiak ordaintzen du aitona-amona bakoitzaren kuotaren zati bat. Gainerakoa, familia berari ko-bratzen zaio, eta eguneko zentroan dagoen senitartekoa diru sarreren arabera izaten da ordaindu behar izaten dena.



Memoria lantzeko ariketak tarte handia hartzen dute egunero; aurreko egunak emandakoa errepasatuz, datorrenari heltzen diote. KARKARA

Orioko eguneko zentroko aitona-amonak

“Etxeko lau paretei begira baino hobeto gaude eguneko zentroan, zainduta”

Orioko eguneko zentroaren jardunbidea ezagututa, protagonistek esateko dutena jaso nahi izan dugu, beren ikuspuntuan eta eskarmen-tuan dagoelako zentroak bizirauteko beharrezkoa den giltza. Egunerokotik atera dituen aurpegi berria aurrean, hitz egiteko desiratzen hartu gaituzte eta jasotako hitzak denen ahotan jarri ditugu, kontakizuna errazte aldera. **Zuen borondatez etorri al zarete eguneko zentroa?**

Bai. Familiakoek – seme-alabekin edo ilobekin bizi gara-lana egin behar dute biziko

Denetarik egiten dugu; baita dantzan ere, bateren baten urtebetetzea dela-eta, trikitixa jotzen dutenean

badira eta ezin dute aldi berean gure kargu egin. Etxean bakarrik egon ordez, hobeto gaude hemen. Pentsa, eroriko bagina, zer pasako litzai-gukeen, inor laguntzeko izango ez bagenu!

Bakardadeak eragin handia du, hortaz?

Jakina, etxeko lau paretei begira egon beharrean, hona ekartzeko eskatu izan dugu batzuk; beste batzuk senide-ek aholkatu eta onartu ondoren etorri gara.

Hemen oso gustura gaude –bateren batek dio lan gehiegi ematen dutela eta nekatu egiten dela–, lagunartean.

Oso ondo zaintzen gaituzte, primerako erizainak ditugu. Arratsalde erdirako ateratzen gara hemendik eta ez da hainbesterako ere.

Mota askotako jarduerak egiten dituzue. Zein duzue gustukoena?

Matematikak gustukoak ditugu gehientsuenok. Bakoi-tzak ahal duena egiten du: ba-

tuketak, zatiketak... hortxe ibiltzen gara denak zenbakiekin.

Eskulanetan ere ondo ari-tzen gara: kolaxak, soineko-ak, Gabonetako dekorazioa... denetarik egiten dugu. Gero, egingako lan guztiak, karpetetan gordetzen ditugu, eskol-etan bezala.

Dantza ere egiten dugu, ba-teren baten urtebetetzea dela-eta, trikitixa jotzen du-tenean. Jokoan zer esanik ez!

Udan belardira ateratzen gara, eguzkia hartzeraz eta primeran egoten gara hor, haize freskoa hartuz. Zuhaitz

Herrikoak ginenok lehendik ezagutzen genuen elkar; hemen egin dugu amistadea besteekin

tartetatik txakurrak eta ka-tuak sartzen zaizkigu, baina...

Hala ere, merienda da gus-tukoena –behin eta berriz errepikatu dute –: kafesnea, galletekin.

Horoskopoa ere irakurtzen omen duzue.

Egunero irakurtzen dugu, baina ez dugu esaten diguna sinesten e! Batzuetan asma-tzen du eta bestetan ez.

Bazkaria goxoa izaten al da?

Bai, ona. Nahikoa lan izaten dute zaintzaileek: batek pu-rea jan behar duela sendagi-leak hala aginduta; besteak, glutenik gabe... lentejak bati, makarroiak besteari...

Zuen artean zer moduz mol-datzen zarete?

Orokorrean ondo –galdera honen aurretik garrantzirik gabeko sesio txikiren bat izan dute, baina–. Herrikoak gine-nok lehendik ezagutzen ge-nuen elkar; hemen egin dugu amistadea besteekin.

Batak besteari laguntzen diogu, behar denean.

Ezkontza: tramite hutsa ala gehiago?

Azkenaldian ezkon-kanpai ugari entzun dut inguruan. Albiste gozoa eta pozgarria da, ez bairik gabe, konturatu gabe eta alde zurretik abisatu gabe etortzen baitira bestelako berriak ere. Ezer esan aurretik, zorionak ezkontzekotan zareten gutzioi.

Ezkontza hitza entzunda zalantza asko datorzkit burura: Elizaz ala zibilez? Intimoa ala bazkari handia? Tramite hutsa ala ospakizuna? Halako gonbidatuko dut ala ez? Aspaldian ez dut tratu handirik, baina koadrilakoa da eta... Uf, ze gogo gutxi! Koadrilan aurten izan dugu guk estreinako ezkontza eta, momentuz, urtero bateko erritmoan goaz. Ba, hala mantentzen bada, ederki!

Lankide batek duela gutxi esan digu ezkontzera doalala. Berarentzat tramite hutsa da ezkontzaren kontua. Arrazoi pertsonalek udaletxera joan eta papera sinatzera bultzatu dute, baina ez du haratago ikusten. Zenbat aldatzen ari diren kontuak, aizue. Lehen, eta batzuen-

tzat oraindik ere, bizitzako ospakizun garrantzitsuenetakoa zena, tramite hutsera bihurtuta. Ai, gure amonak burua altxako balu...

Nire inguruan ezkontzeko sortu den grina ikusita, derrigorrezkoa al da, ba, ezkontzea? Ez ba. Posible da elkarrekin bizitzea, Elizaren edo legearen aurrean ezer sinatu gabe. Gainera, ezkondu ostean sexu-harremanen kopurua %60 jaisten dela entzunda -hala diote estatistikek- nagidura apur bat sortzen du harremana formalizatzeko, egia esan.

Duela gutxi ezagutu dut beste ezkontza mota: ezkontza faltsua, hain zuzen. Eta nola da hori? Pentsatuko duzue.

Ezkontza faltsua: aitzakia ederra elegante jantzi, bapojan eta edan eta egun ederra pasatzeko

Zure lagunek asteburu pasa zoaztela eta motxila prestatzeko esaten dizute. Baina etxetik atera eta zapata zatarraren azpian ohar bat daukazu, asteburu pasarik ez dagoela eta dotore-dotore jantzteko esanez.

Guztiak dotore jantzita jantetxe batera. Eta karpabaten azpian amerikarren eran lagunetako batek testu bat irakurriko du eta eraztunak atera. Behin ipuina bukatuta, bazkaldu eta festara. Aukera ona izan liteke hori ezkontzeko asmorik ez duten bikoteei egiteko. Aitzakia ederra behintzat elegante jantzi, bapojan eta edan eta egun ederra pasatzeko.

P. D. Bukatu aurretik zorionak eman nahi dizkiot Pablo koinatuari euskara ikasteko egiten ari den ahaleginagatik. Pixka bat gehiago ikasten duenean txoko hau irakurtzen hasiko dela agindu dit eta grina eta gogo berdinekin jarrai dezan, *Moila bazter* honetatik animoak bai Pablori eta euskaltegiko talde osoari. Zorionak eta segi horrela!



edmitologia
ANTILLA
jiletologia
Auzolari Kalea, 2 - Tel. 943 83 26 00

zkue
Tf: 943 13 04 38

2GURPIL
Bosquillo 2 - 3 - 20010 Orre (Gipuzkoa)
Tel: 943 333 880 www.2gurpilbizibetak.com

uranga
autozerbitzua
Aliprox
Euzko Gudari Kalea 13-15
ORRE
943 83 38 75

Allianz
Marigre Zaldua
aseguru agentzia
Ibai Ordo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: marigrezaldua@telefonosnet.com

agirresarobe ARKITEKTURA
OBRA ETA PROIEKTUAK
ETXEBIZITZA ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK
FABRICA ETA TRILATZEN ERABERITZE PROIEKTUAK, OBRAILAK
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORNEAK, BERRIKOORDINAZIOA
OBRA BERRIKOORDINAZIOAK, HIRIGINTZA, LURREN KUOPAKETA
KORREKTAZIOAK, BERRIKOORDINAZIOAK, ARKITEKTURA
TURRIDOE 3, 5, GULEDOA, ZARATZ
MUD: 635 731 722

Kinkladenda - Ume arropa
argine
www.lesonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN

ARKAITZ
Taberna
Pintxoak,
plajer konbinaluak
eta ogitarleko mundialak
ABESLARI KALEA, 1
Tel: 943 33 16 57

Borroka berean gabiltza



buztua Argentinan eta Uruguain pasa dut Askapenak urtero antolatzen dituen brigadetako batean.

Helburua argia zen:

Euskal Herrian bizi duguna azaltzea, batetik, eta hango eragile politiko-sozial eta sindikalekin bilduz, beren errealtate eta borroken berri zuzenean jasotzea, bestetik.

Uztailaren 30ean abiatu ginen hemendik eta 12 orduko hegaldiaren ondoren iritsi ginen Buenos Airesera, nekatuta baina gogotsu. Lehen bi egunak hiria eta Argentinako historia nahiz egungo errealtatea ezagutzeko erabili genituen –Euskal Etxean afari goxo bat egiteko aukera ere izan genuen. Hurrengo bospasei egunetan hiriko eta kanpoaldeko eragileekin bildu eta haien lana ikusi genuen, eta guk haiei gure egunerokoa azaldu genien. Auzo txiroenetan izan ginen. Berriz altzataka fabrikak ere ezagutu genituen, sindikatu eta langileekin hitz egiteko... aukera izan genuen. Ikaragarria da inolako laguntzarik gabe okindegiak, josteko tailerrak, anbulatorioak, kultur lokalak edo kirola egiteko kantzak nola eraikitzen dituzten ikustea, talde eragile hauen militantzia oinarrituta. Ez dute dirurik, ezta gobernuak emandako diru-laguntzarik jasotzen, baina oso antolaketa ona dute eta elkartasuna eta biharko gizartea hobetzen saiatzea oinarri hartuta jarduten dira lanean.



Birsortutako lantegiak, aldiz, langileen borrokari eta desobedientziari esker berreskuratu diren espazioak dira. Bertan ez dute lana bakarrik egiten: auzo eskolek, kultur taldeek edota auzoko irrati eta telebistek ere lekutxoak badute; ondorioz, oso espazio aberatsak dira.

Egonaldiaren bigarren astean asko bidaiatu genuen: Mar del Platan, Rosario eta Brasil eta Paraguarirekin mugan dauden Igua-zuko ur-jauzietan izan ginen. Leku zoragarriak dira benetan, eta bertako jendearen esku zabaltasuna ere azpimarratzekoa da.

Uruguaira joan ginen, Buenos Aiestik ordubetera baporean, eta gero Montevideon pasa genituen hurrengo 10 egunak. Izugarri gustatu zitzaidan hiri hori. 1.500.000 biztanle ditu, baina herrikoia da, oso lasaia. Bertako Euskal Herriaren Lagunak taldeko kideak etorri ziren ongi etorria ematera. Gero lanera.

1994ko abuztuaren 24an gose eta egarri greba egin zuten erbesteratutako hiru euskaldunek, Filtro ospitalearen kanpoaldean. Uruguaitarrek azaldu zuten elkartasunaren ondorioz izan ziren gertakizunengatik –poliziak bortizki kargatu zuen eta bi gazte uruguaitar erail zituen tiroka– urtero egiten da martxa bat eta, besteak beste, hori antolatzen laguntzea eta hedabideetan Euskal Herriaren egoera azaltzea izan zen gure eginkizuna. Egia esan, gure berri dezente dute Uruguain; euskal jatorriko jende asko dago. Hemen ere gurekiko oso jarrera ona azaldu zuten eta bertan egindako hamar egunak konturatzerako igaro zitzaizkigun. Ondoren, berriz Buenos Airesera itzuli eta beste lau egun han eginda, etxerako bidea hartu genuen.

Oso zaila da horrelako artikulua motz batean hilabete batean pasatakoak eta bertako sentipenak azaltzea, baina benetan esperientzia aberasgarria izan da han izan garen guztiontzat. Edonori gomendatzen diot Brigada Internazionalista batean parte hartzea, zeren, azken batean nahiz eta oso leku eta kultura ezberdinetatik gatozen, borroka berak batzen gaitu.

Uruguain urtero egiten da martxa bat, 1994ko abuztuaren 24an gose eta egarri greban egon ziren erbesteratutako hiru euskaldunei babesa emateagatik erahil zituzten bi gazte gogora ekartzeko. Hori antolatzen lagundu genuen

Nire honetan
Ana G. de Txabarri

Beste koska bat

Jo dezagun badirela ahalmen bereziak dituzten pertsonak eta etorkizunean zein gauza zoragarriak gertatuko zaizkizun jakiten duzula igarle horietako baten bidez. Eder horien jakinaren gainean... sorpresarik gabe bizitzeko prest egongo al zinateke? Berrionak ematen duten pozari uko egin? Datorrena ezagututa... dardararik ez? Emoziorik ez? Pentsa dezagun zoritarrekoak direla iragarpenak... urduri, kezkatu bizi berri txarren mehatxupearan etsita? Zapuztuta, bizipozik gabe, nola egin aurrera?

Eman dezagun iragarle horiek ez direla uste bezain onak eta ez dutela asmatzen. Egindako promesak ez direlako betetzen... pipertuta pasako zenituzke egunak? Gaitzaren zain kokilduta, beldurrez eman urteak eta urteak?

Modu batekoa ala bestekoa izan, askatasunik gabeko bizitza litzateke halako burutazioetatik sortutakoaren menpe dagoen hori. Mugimendu propiorik gabeko panpinak izango ginateke, beste batek sokari eragin eta aritzen den txotxongilo.

Ez zaizkit iruditzen aukera horiek bizi beharrekoak antolatzeke egokiak; ezabatu egiten dutelako andre-gizonek munduan egoteko gogo, bizi-mina.

Hemen eta orain, erregalia da bizitza.

sinergia investigación fisioterapia
 FISIOTERAPIA Gaitortze Aholkari eta Nalimik Winescon
 NUTRIZIONISTA Gaitortze Aholkari
 ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

taller mecanicoa
AUTO-LAN
C. B.

urrutira joan gabe
 talde berria
 zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

PERTSIANAK
A
K
O
M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

161.913.1329 or Mugikorra 600 70 27

SOLOZABAL
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erreturak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Udala kalea, 4 - 20.001 BARRUTIA



ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA

URAITZ
Luzindegia

Enlata? Tfax: 943 83 15 97

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74
Arrantzale, 31 - 20810 ORRIO

WEB
DISEÑU
PROGRAMAZIOA


JON CERÉZO OTÁÑO

TEL: 691-31-22-40

estilo berria

Ogitartekoa
Plater konbinatuak
Etxeke janaria
Pintxoak

943 13 13 12
Aitor eta Gorka



**ASADOR
XIXARIO**

Pasaleku Gudari, Kalea 2
Tel: 943 83 91 2000

ZAPATA KONPONKETAK

Lanorainetan: 09:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:00
Larunegietan: 09:00 - 13:00
Berritako erreturak, Orrio

kutixi
kafetegia
GOSARI GONDOAK

Arizaga 5, 20810 ORRIO
Tf: 943 15 15 17

ITZALA
kartelak jokatzen
azpizena

tel. 943 83 12 59

azkue
karrozeria

Ubegun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orrio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

GaleBask S.L.
Berrikuntzak
Gremioen arteko koordinazioa

838 610 349
Tel./Fax: 943 134 717
galebask@hotmail.com

www.galebask.com
Kale Nagusia, 2 -bajo
20810 ORRIO

Portu
ERRETEGIA

Santa Erika Auzoa, 64
943 89 34 64
20809 AIA-ORRIO

Erreturak, berritako erreturak, erreturak eta erreturak

Gaia emanda

Landan ala kalean bizi, zer da hobe

Hirietako denda, eskaparate edo jendez betetako kaleetan bizi ala naturaren erdian haizeak eta eguzkiak emandako erritmora egokitzea: hemen bi iritzi

Esperientzia hiritarrak

Zazpi urterekin Zarauzko Modelora eraman ninduten *El club de los poetas muertos* filma ikustera. 8 nituenean, haragirik jaten ez zen udaleku batera. Jada 19 nituenean Aiako koadrila utzi eta Orion egin nuen lagunartea. 20 urte nituenean Finlandiara joan nintzen praktikak burutzera. 23 urterekin Londresera dantza ikastera, eta 27 urte betez geroztik Bilbon bizi eta lan egiten dut.

Aurreko paragrafora jo eta arrapaladan irakurritako gertaera horiek berriz irakurriz, 23 urtez geroztik bizi izandako esperientziei deritzot errazen.

Lehengusuok, tropan, bi izebekin Zarautza jaitsi eta hura festa! zinera gindoazela eta. Ez zen guztientzat lehen aldia, baina bai niretzako. Zaharrenen mugimenduak liluraturuta, non nenbilen ere gehiegi jakin gabe eseri nintzen *Moooooobirekorrrrr* abestuz butakan. Ondoren filma, baina bakarrik ikusi behar izan nuen. Lehengusuen iskanbilarik ez zen han pantailan ikusten nuenetik lilura mundu bat sortzeko.

Motokaxero izateari utzi eta Orioko modernitatera egin nuen 19rekin. Landare exotiko sentitzen nintzen inguru berrian

Lehen jaunartzea egin eta gutxira deitu zidan Lasarteko Rosak, Nagorerekin udalekuetara Segoviara joan nahi al nuen eskainiz. Amak bai mena eman zidan, izan ere, jaunartzean jasotako diruopariarekin iritsi egiten baitzitzaidan justu-justu. Nolatan ez zuen inork begetarianoa zela aipatzeko tartea hartu? Haragirik gabe 15 egun pasatzeaz gain, entsaldan ere sekula jan gabeko produktu ezezagunak bakarrik topatzen nituen. Beti esan izan dut eta: nire herrian neskalguntzen ez egitea hobeto ikusia dago begetarianoa izatea baino.

Motokaxero izateari utzi eta Orioko modernitatera egin nuen 19rekin. Landare exotiko sentitzen nintzen inguru berrian, non eta neure herrian urte guztian loretan egoteaz aspertzen zen horietakoa nintzen.

20 urte nituela, Finlandiara joan nintzen eta hango hotzak hil zituen nire ordura arteko loreak, udaberriko izotz berantiarrak ohi duen moduan. Gero, zuhaitz sendotuan lore gazte eta berriak, internazionalak eta ez exotikoak sortu ziren.

Zuhaitz horrek, jada urtaroen agindupean bada ere, loratzen jarraitzen du. Oraindik jakin ez daki, ordea, hirian sustraituko den betiko ala baserriko lurretara itzuliko.

Eneko Balerdi
Baserrian jaioa

Kaletik baserrira

Bta indarrakongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz, bertatikan irautea...

Baserritarren bizimodua asko gerturatu da Leteren bertso unibertsalek ziotenera. Inguruneak eskaintzen dietetik ekoiztu dituzte elikagaiak, naturaren erritmoak eta oreka errespetatuz. Azken hamarkadetan, ordea, kaletarrok asko urrundu gara eredu horretatik eta, mende-etako jakiturari muzin eginez, gure aiton-amonen bizimodua ahaztu dugu. Inguruneak ezartzen dizkigun mugak onartu ordez, guztia eduki nahi izan dugu, eta azkar gainera! Gure bizimodua moldatu dugu erritmo azkar

batean bizitzeko eta elikadurara ere ez da salbuespena izan. Erosketak egiteko ohiturak ikaragarri aldatu ditugu eta, ondorioz, baserritarren elikagai fresko, sano eta naturalak ia merkaturik gabe geratu dira. Hori dela eta, baserriko jarduera jende askok utzi behar izan du, ia sektorea desgertzeraino.

Errealitate gordin hori ikusita, begirunea merezi dute baserritarrek. Gu biok ez gara baserritarrik. Bizitzera baserri ingurunera etorri garen bi kaleume baino ez gara.

BOGA Urte erdia ez da pasa Salmaristi inguruko lursail bat utzi zigutenetik eta baratza bat zer zen ikasten hasi ginenetik –eskerririk asko Txomin! Orain, etxe bueltan ditugun lurretan baratza koskorrago bat egin eta bertatik *soldata* bat ateratzea da gure asmoa. Komatxo artean doa soldata, ezinezkoa baita kalekoen parera iristea. Baina garbi dugu irabazten duguna baino garrantzitsuagoa dela zenbatekin bizi ahal dugun zehaztea.

Bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak baloratuz lasaiago eta naturaren erritmora bizitzen ikastera etorri gara hona. Ez da erronka makala, baina ilusio eta gogorik ez zaigu falta behintzat! Bertsoaren bukaerak dion bezala... *ezaren gudaz baitza sortuz, ukazioa legez hartuz beti aurrera joatea.*

Ainara Peña eta Iñaki Zaldúa
Kalean jaiok

Bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak baloratuz lasaiago eta naturaren erritmora bizitzen ikastera etorri gara baserrira



Orioko stock azokan kontzertua eskaini zuen Azkaiter Pelox & the Road band taldeak. KARKARA

Showmanik gabe, motz geratu da lan berria

Kritika Azkaiter Pelox & the Road band zuzenean

Ez da erraza horren ondo ezagutzen duan tipo baten lana kritikatzeko, badakidalako zenbateko ilusioa jarri duen CDa egiten. Orioko gazte gehienok ezagutzen dugu Azkaiter Pelox, Unai edo Mahaster, eta denok izan gara bere kontzerturen batean; aukera dezente izan dugu. Beraz, laguntasunez eta laguntasunetik egingo dut kritika, gezurrik esan gabe. Hi-

tzak neurtuz, baina ezer niretzat gorde gabe. Barkazak!

Bateriarekin hasten da diskoa: gitarra rokerok jarraitzen diote. Ez du itxura txarrik. Ahotsarekin ere bere modura denfendatzen da; txukun entzuten da, Orioko Kalakarin eta Bergarako Skatparkean grabatua izan dela kontuan hartuta. Abesti bat bukatu eta bestea hasi arteko oihuek, ordea, ez dute barkamenik. Nabari da saioetan jendeabazela eta asko animatzen zutela, baina gehiegizkoak iruditzen zaizkit marruak. Batzuetan ez dakit Azkaiter Pelox ala AC/DC den.

Kolaborazioei helduz, musika ibilbidean bidelagun

izandako lagun asko ditu alboan, tartean, Eñaut Marti oriotarra. Baina, bat nabarmentzearen, Amaia Azpiazu aipatuko nuke. Neska horren ahotsak ukitu berezia ematen dio diskoari, inguruan dituen rokeroen lana goxatuz.

Orokorrean, ez dizuet diskoa gustatu ez zaidanik esango, zuzenekoa ondo islatzen baitu, baina Azkaiterrek duen *showman* izaera eta esentzia falta zaio. Azkaitearren kontzertuak entzuteko baino gehiago ikusteko dira. Nahiago nuke CDa beharrean DVDa egin balu. Motz geratu haiz!

[MIKEL ARANZABAL]

Ikasleak idazle
Gorka Etxeberria

Ibaia kutsadura

Badira urte batzuk Oriabaia egun batetik bestera beltz agertzen dela, eta azken aldiarritan gertatzen ari da, Aginaga eta Saikola inguruan egiten diren isurketen ondorioz. Horrek hainbat bizidun akabatu ditu Orian, izkira, korroko, lupi eta beste zenbait espeziatiko urtarrak. Pena da, hain aberatsa den ibaia era horretan ikustea.



Ibai ertzean bizi diren hainbat pertsona entzun dut gai honen inguruan kezaka, baina inork

ez du inor ikusi zerrikeria hori uretara botatzen. Norengana joan behar dugu egoera horren aurrean? Noren erantzukizuna da errudunak harrapatzea? Ez al da komeni horiek salatzea ala?

Nik uste hori baino gauza zailagoak egiten dituztenak harrapatzen dituztela, eta horiek harrapatu nahi ez badituzte, komeni ez delako da.

Pena da hain aberatsa den ibaia era horretan zikindua ikustea



» INKESTA

Etxebizitzan prezioa gehiago jaitsiko dela uste al duzu?

34 erantzun jaso ditu galderak. **%44**ak baiezkoa erantzun du, **%50**ak uste du ez dela igoko, eta **%5**ari bost axola zaio.

**HURRENGO GALDERA****Zer marrazki eramane behar luke Orioko festetako zapiak?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 289. KARKARAN argitaratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Jura Azkue Rekarte**

Azaroaren batean, iluntzean, jaio zen Jura Azkue Rekarte, 4,200 kilorekin. Besoetan hartzeko desiratzen zeuden, zain-zain, batez ere, ama Iona, aita Eugenio eta ahizpa Usua. Aitona-amona, osaba-izeba -Madriletak etorri zaio osaba Manex, bera ezagutzeko- eta gainerakoek ere beso zabalik hartu dute txikia. Ama Ionak bezala, Eskoziako irla baten izena du Jurak, amona Paten jatorria gogora ekarriz.

» ZORITXARRAK!

Beti traban dauden autoei

Autoak batean eta beste aparkatzeko arazo ugari izaten dela gauza jakina da, baina azken muturreraino autoan joan behar hori ere gehiegizkoa da batzuen kasuan.

Azken muturrera, bai. Izan ere, kanpoko eskoilera muturrera autoz ez, baina oinez edo bizikletaz joan nahi dutenek autoak aurkituko dituzte traban gehienetan bidean.

Moila berrian obrak hasi zituztenetik porlanezko mugarrak daude jarrita, baina bata eta bestearen artean baziren pasabideak, estuak baina tartekak. Horien parean, ordea, oinezkoak edo txirrin-duzaleak kontuan hartu gabe, autoa aparkatzen du askok enbarazu egin eta pasabideaitxiz.

AMILIBIA
ONTZIOIAK, S. L.

lari permutan prozedu eta instalazioak

guztira maizko lehiaketarako irabazitzaileak

Olaskoagaia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Goizeko
KAFETEGIA

☎ 943 83 28 55

Aita Leizundia, 33. bidea - ORIO
Autobus parada ondoan

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAS

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBIKU ORIGINALA

ZARAUTZ, Tfno. 943 13 13 50

HAIZE BERRI
saborra-jateleku-kafetegia

Plater konbiantuak,
bokitak,
hamburgesak,
racoak,
eguneko menua...

eta ezbera eramateko zerbitzuak!

Tfno: 943 83 06 09

Gabon
TABERNA

plater konbiantuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

943 83 18 45 / 943 80 28 38
ZARAUTZ



KARKARA

“Ideia polita da Euskal Herrian nola integratu garen erakusteko”

Fatimata, Ngary, Mussa, Basirou eta Ousmane

Orioko senegaldarrak

Irrien lagunak da Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen DVD berria. Lan horretan pailazoek *Teranga Senegal* izenpean gurekin bizitzen ari diren senegaldarrak atera dituzte lanean zein dantzan eta Orion bizi diren Senegaleko lagunekin aritu dira grabatzen

IRATI AGIRREAZALDEGI

Senegaldarrak dira Fatimata Mbaye, Ngary Mbour, Mussa Diongue, Basirou Bâ eta Ousmane Sabaly, oriotartutako senegaldarrak. Afrikatik Oriora ekarritakoa Euskal Herrira zabalduko dute *Irrien lagunak* DVDarekin. Irria ahoan, pailazoekin egindakoaz hitz egin dute.

Nola sortuzen DVDaren ideia?

Senegalen irudi batzuk grabatu zituzten, baita kanta bat ere, antzinako kanta bat, guretzat oso ezaguna dena. Kantua abestu duena nire aitarekin (Fatimata)

kontzertuak emandakoa da. Beraz, kantua entzun eta umeekin dantzatu ahal izateko pauso batzuk entseatzen ibili ginen gero filmatzeko.

Grabaketa nola egin zenuten?

Kantuan eta dantzan grabatu dute Fatimata; Mussa sukaldean eta batukadako danborrekin; Ousmane futbolearen eta Ngary eta Basirou mahats biltzen; horrez gain Marleni (Fatimataren alaba) galderak ere egin zizkioten, bera Orion jaioa baita eta euskaraz badaki. Hala ere, ez dizkigute irudiak lanean bakarrik hartu, denok aritu gara kantuan, dantzan edo tresnaren bat jotzen.

Pailazoekin horrelako lan bat egiteari zer iritzi diozue?

Uste dugu ideia polita eta interesgarria dela erakusteko nola bizi garen senegaldarrak Euskal Herrian, nola integratu garen eta zein ongi hartu gaituzten. Ikusteko ez gabela inola ere arrisku-tsuak, badelako jendea iritzi hori daukana. Gure ohiturak eta kultura ezagutarazteko ere balio dezake.

Lan honekin zer eman duzue?

Guk eman, daukaguna eta garena eman dugu. Izan ere, azal beltzeko jendearekiko errezeloa dauka hainbat jendek, konfiantza falta zaiela dirudi. Hala ere, jakin badakigu askotariko jendea dagoela, baina Orion oro har oso ongi hartu gaituzte. Beraz, lan honekin eman diegu gu pixka bat hobeto ezagutzeko bidea eta ez da oraingo bakarrik baliagarria izango, baizik eta etorkizunerako ere, haur horiek orain ikasia gero ere biziko baitute.

Eta trukean jaso?

Konfiantza jaso dugula uste dugu. Bada hemengo jendea pailazoengana iritsi nahi eta bidea hain erraz ez daukana eta guk, ordea, kanpotarrak izanik haiekin lan egiteko aukera izan dugu.

DVDa ikusita zer iruditu zaizue?

Asko gustatu zaigu eta gure herrira ere bidali dugu hango gure senideek ikus dezaten. Orioko gurasoren batzuk ere esan digute erosi dutela DVDa batik bat guk egindako lana ikusteko. Ez digute eskatu, baina gustatuko litzaiguke zuzeneko ikuskizunean parte hartzea, sekulakoa litzateke. Batik bat umeen ilusioa bertatik bertara bizi izateko eta gozatzeko.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Pisukide bila nabil, Orioko Abeslari kaleko etxe batean bizitzeko. Tf: 691 31 22 40 (Jon).
- Etxebizitza berria alokatzeko, Armendigain kalean, Aian. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta jangela ditu. Tf: 629 68 0410.
- Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo lan orduetan, 943 83 15 18.
- Etxe-txiki bat emango nuke alokairuan Aian, kaskotik 50 metrora. 635 71 88 38

Salgai

- Garaje bikoitza salgai Erribera kalean. 38 metro koadro. 63.000 euro. Tf: 636 38 66 63 / 607 58 08 41.

- Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.
- Etxea salgai Eusko Gudarin. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

Galdutakoak

- Urtebeteko haurren txaleko urdin argia galdu zitzaidan azaoraren 8 goizean. Bateren batek jaso badu, dei diezadala, arren 677 84 33 23 telefonora.

Lan eskaintzak

- Desbrozadorekin belardi edota zelaietako belarra moztzen dut. Prezio oneko zerbitzu txukuna. Tf: 697 750 196.
- LH eta DBHko lehen zikloko ikasleei klase praktikularrak emateko prest

- dago batxilergo ikaslea. Interesatuek deitu 600 39 02 38ra (Goiuri). Tf: 608 16 49 71 (Amaia)
- Ingeniari teknikoak haur eta gaztetxoentzat klase partikularrak eskaintzen ditu. 608 16 49 71 (Amaia).
- Orion bizi den emakume marokoarrak lan egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldean laguntzen. Garbiketa lanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
12	07:33 eta 20:11	01:33 eta 13:49	
13	08:14 eta 21:09	01:47 eta 15:06	
14	09:43 eta 22:43	02:48 eta 16:17	
15	11:33 eta ____	04:38 eta 18:09	
16	00:35 eta 12:53	06:29 eta 19:39	
17	01:40 eta 13:51	07:24 eta 20:00	
18	02:20 eta 14:30	08:29 eta 20:37	
19	02:50 eta 15:01	08:58 eta 21:08	
20	03:17 eta 15:31	09:25 eta 21:37	
21	03:44 eta 16:01	09:53 eta 22:08	
22	04:13 eta 16:33	10:22 eta 22:39	
23	04:44 eta 17:07	10:54 eta 23:13	
24	05:17 eta 17:43	11:29 eta 23:50	
25	05:54 eta 18:23	12:07 eta ____	
26	06:34 eta 19:08	00:30 eta 12:50	

» ZAINZAKO BOTIKAK

- AZAROA
- 12an, Mutulozabal.
 - 13an eta 14an, Etxeberria.
 - 15ean, Zulaika.
 - 16an, Iriarte.
 - 17an, Larrañaga.
 - 18an, Mutulozabal.
 - 19an, Etxeberria.
 - 20tik 26ra, Lasa.
 - 27 eta 28an, Azaldegia.
 - 29an, Larrañaga.
 - 30ean, Gallo.
- ABENDUA
- 1ean, Etxeberria.
 - 2an, Gallo.
 - 3an, Mutulozabal.
- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoakalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutulozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Musika Eskolako kalejira

Musikarien zaindari da santa Zezilia eta bere eguna azaroaren 22an bada ere, Orioko musika eskolako ikasleek hilaren 18an egingo dute ospakizuna. 17:00etan abiatu eta kalejiran ibiliko dira. Geldialdiekin batera, musika-piezak eskainiko dituzte zenbait lekutan: kultur etxe atzeko plazan, Baxoalde plazan, Zakilaeneko aldapan eta Herriko plazan. Txokolatada, kontzertua eta diploma banaketa izango da gero, 18:30ean, kultur etxean.

Orio

Hitzaldiak

■ Azaroaren 12an eta 13an, zabor organikoa jasotzeko edukiontzi marroiari buruzko hitzaldia. 17:30etik 19:30era, ostiralean; 11:00-13:00, larunbatean, kultur etxean.
 ■ Azaroaren 22an eta 29an, Ana Elozegi psikologoaren *Etxeko nerabea eta ni* hitzaldia. 19:00etan, kultur etxean.

Musika emanaldia

■ Azaroaren 12an, Tim Holehousen, Mikel Aranzabalen eta Eñaut Martiren kontzertua. 22:30ean, gaztetxean.

Ipuin kontalaria

■ Azaroaren 16an, Judith Huegun ipuin kontalariaren saioa 5 eta 8 urte bitarteko umeentzat. 18:00etan kultur etxean.

San Nikolas festak

■ Azaroko astelehenetan eta asteazkenetan, sanikolasetako danborradarako entsaioak. 20:30ean, Orioko Herri Ikastolako pergolan.

Hazi banaketa

■ Azaroaren 13an, Euskal Herriko zuhaitzen hazien banaketa Herri taldearen eskutik. 11:00etatik 14:00etara, plazan.

Kirola

■ Mendi irteera: azaroaren 28an, Talai Mendi mendikarteak antolatuta, Bardeetara irteera. Autobus geltokian.
 ■ Futbola: azaroaren 13an eta 14an. Preferentean: Aretxabaleta B-Orio; jubenilean: Orio-San Patricio; kadeteen: Urola B-Orio; infantilean: Amaikak bat-Orio; alebinean: Orio-Vasconia; emakumezkoetan: Aloña Mendi-Orio.

■ Saskibaloia: azaroaren 12an, 3. mailan: Ordizia-Alustiza Autobusak/Orio, 19:30ean. Azaroaren 13an, infantil mutiletan: Larramendi ILK B-Oriko Ikastola, 09:45ean; eta infantil nesketan: Orioko Ikastola-Bera-Bera Manteo B, 11:00etan, Karelana. Azaroaren 14an, errendimenduko kadete neskek: HierrosMavi/Goierri-Orio, 10:45ean.

Aia

Sanmartinak Urdanetan

■ Azaroaren 12an, mus txapelketa, 22:00etan, Indamendin. Parranda 23:00etatik aurrera.
 ■ Azaroaren 13an, ume jolasak eta gozokiak 16:00etan; Gorriti's Show 17:00etan; ondoren txokolatada. Afaria, B. Lizaso eta I. Urdangarin ber-

tsolariekin eta Izer eta Alabier trikitilarekin, 21:00etan. Goizaldean, baratzuri zopa.

■ Azaroaren 14an, meza 11:30ean; pilota txapelketako finalak 12:00etan; ondoren, herri kirolak. Dema berezia 17:00etan; eta Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria Ximorren 22:30etan.

■ Azaroaren 15ean, diana, 07:00etan; oilasko biltzea, 07:30ean; auzokoen afaria 21:00etan Indamendin; ondoren Izer eta Alabierrekin erromeria; patata-dantza, 23:30ean; traka 00:00etan.

Errommeria

■ Azaroaren 21ean, igandea, erromeria Arkaitz Allur eta Agurtzane Mujika trikitilarekin. 18:30etik 21:30ak arte, Aristerrazuko plazan.

Atzeko azala: Orioko festetan ateratako argazkia, duela, gutxienez, 50 urte. Juana Mari Atorrasagasti da argazkiko neskatoa.
Iturria: Juana Mari Atorrasagasti

